

Iruñeko V.
bertsopaper
lehiaketa

Antolatzaileak:



Iruñeko V. Bertsopaper Lehiaketa. 2024

Saritutako lanak

AURKIBIDEA

A kategoria

(1.saria)

Enaitz Zestau Telletxea. *Itzako argia* 3

(2.saria)

Araia Irigibel Terreros. *Mundu eder bat bada* 5

(3.saria)

Enaitz Zestau Telletxea. *Sakelekoa* 7

B kategoria

(1.saria)

Kattin Madariaga Apaolaza. *Hainbertze gauza pasatzen dira* 9

(2.saria)

Kattin Madariaga Apaolaza. *Hasieran ez zegoen ezer*12

(3.saria)

Kattalin Lizarraga Mendia. *Txirrina kantari*14

C kategoria

(1.saria)


Eneko Lazkoz Martinez. *Inoiz ez da berandu! Edo agian bai?*16

(2.saria)

Joanes Illarregi Marzol. *Manuelen ahotik* 21

(3.saria)

Erika Lagoma Pombar. *Inozentzi garbitzen duena*26



ENAITZ ZESTAU TELLETXEA

Itzalpeko argia

A kategoria – 1.saria

Doinua : Maite gaituzten soro zelaiak

1. Gazan bizi den haurtxo txikia
gaur dabil nahiko urduri
Israelek bonba bat bota du
ta hurbil zaio erori
bebeslekuen bila dabilta
lasterka-lasterka ari
denak sufritzen ari direla
hori argi da ageri
hauts bilakatzen dizkietela
etxe txiki eta haundi
umeak babes hartu du eta
galdetu dio amari :
zergatik min egin nahi diote
berriz gure herriari.

2. Hilabeteak nolabait ere
pasa dira jada tira !
Metraila hotsak lokartu dira
jada ezta Gaza mira
haurtxoa bi begi haundirekin
ari da dena begira
galduak ditu lagunak eta
galdua dauka dirdira
herria bizi da hala ere
eman beharko da bira
gaurko egunez joanen dira
itzal hartatik argira
herria eta olibondoak
gaur loratu egin dira.



ARAIA IRIGIBEL TERREROS

Mundu eder bat bada

A kategoria – 2.saria

Doinua: Txuriko

Gizartean daukagu
arazo koxkorra
Instagram izatea
ez da derrigorra
baina gehientzako
hori da altxorra
askok 10 urtekin
dute mugikorra

Pantailari begira
sari zenbat plazer
burua izorratu
youtuberi esker
sare-sozialak Insta
Tik-Tok edo Twitter
bihurtuko gaituzte
tuntun eta alfer

Horrenbeste pantaila
gorputzak dardara
ohartzerako pasa
egin zaigu gaba.
Utzi tableta eta
joan zaitez plazara
begiak altxaz gero
mundu eder bat bada



ENAITZ ZESTAU TELLETXEA

Sakelekoa

A kategoria – 3.saria

Doinua: Baneza eta banitu

1. Xabor ttiki ta pottoko
dira nire sakeleko
baita nire eskutako
hatz guztiak kukutzeko
beste gailu hori ez daukat ta
ez dit sakela beteko
nik telefonoa ez dut behar
nik jolastea gustoko
ez dut atsegin nik egotea
telefonoen menpeko
eta etxeko finkoarekin
bizi ahal naiz gustora asko.

2. Gizarte osoa zikin
dabil sakelekoekin
egun osoa harekin
horko bideo jokoekin
ta hori ez bada youtube-ko
bideo, tik-tok ta denekin
istagram sare sozialetan
geldiezin orduan ekin
telefonoekin gauden denboran
ezin egon elkarrekin
utzi gailu hori ta bizi aske
goza ingurukoekin.



KATTIN MADARIAGA APAOLAZA

Hainbertze gauza pasatzen dira

B kategoria – 1.saria

Doinua: azken urteetan gure herrian

Hainbertze gauza pasatzen dira
erdiak ezin jakinta
Mina, gosea ta amorrua
ume bat negar-zotinka
Ahoak itxi ta debekatu
gorroto kutsudun zinka
gorpu bat lotu, ehun gorpu lotu
ta sokak gogotik tinka
bota du hinkarik hinka
gorri koloreko tinta
Bidaia luze bat datorkigu
helmuga bat ezin finka
lotu ditzagun uhalak hasi
bertzerik ez da egin ta

Batzuen neurritz egina dago
irabazleen tarima
batzuk bakarrik sentitzen dute
garaipenaren kilima
batzuk bakarrik ibiltzen dira
pertsonekin ezin estima
banaezinak bihurtzeraino
gorputza eta arima
elkartu dira biktima,
izua eta doktrina
batzuentzako garaipena ta
bertzeentzako lastima
Eta gorpuen hobi zikin bat
bihurtu da Palestina

Mugitu ezin uzten baikaitu
errealitate zartadak:
zaurituak ta etxegabeak,
hildakoen errenkadak.
Gu ere mintzen gaitu nolabait
erasotzaile armadak
Ignorantziak babesten gaitu,
lausotutako isladak
Jaten bagaitu ikarak,
nork joan nahi du ba harat?
alferrik dira gure manifik,
kontzentrak eta sentadak
egunean behin erortzen bada
haur eskolara bonba bat

izua denez kontrolatzeko
jartzen duten amuzkia
muturreraino doa handitzen
beldurraren industria
Gogorra da bai begiratzea
izan gabe ahalguzita
zauri bat josi ezin dutena
ta norbaiten gorpuzkia
mina eta angusita
masailaldea bustia
Ez dirudi, ez, baina hala da
mundu bera da guztia
hemen bezala irteten da han
egunero eguzkia

Errazegia da hitz beltzenak
kolpe batez zuritzea
ta konpartitu ezin direnak
beldurrez konpartitzea
estali nahia koadrodun zapi
ta odoldun mihisea
Deus ere egin nahi ez duena
ere bada konplizea
bizi gabe bizitzea,
bihotz barrua iltzea
nola liteke bertze behin ere
befikotzea klixea:
batzuk lurraldez ase daitezen
bertzeak gosez hiltzea?

Lehen nahikoa gogorra bazen
orain gogorrago are
orain ez lagun, ez bizileku,
ta ez familia-sare
guk suposatzen dugun heinean
hau ez dela horren grabe
etenik gabe dabilta jartzen
nahi ez izanda, halare
heldu, ume zein nerabe
ta herio parez pare
Gauero joaten gara ohatzera
kontzientzia karga gabe
ta bitartean bertze pila bat
ohatzerik gabe daude
Sufriarazi beharra nola
izan daiteke begiko
izan beharra jendea gaixo

eta arropa gorriko?
ez dakit segi nahi ote duten
mugarik gabe betiko
hainbertze ere ez direlako
berrogei mila ta piko
ez dugu luze eutsiko
ardura nori utziko
nahiz eta odol putzuetan ez
diren gure erruz ito
begiak ixten segi ezkerro
ez dugu deus ikusiko

Biraoak hemen, hildakoak hor,
izudun anabasa han
mugarik inork jarriko al du
abiatu den bidatzen?
Ja ez du inork begirik jartzen
lehengo kamerako gasan
Gerra bat da hau, gerra zikin bat
begiratu zertan datzan
Zer egin daiteke Gazan
hankak sartu gabe basan?
Beldurrak jan nah bagaitu denok
ala bazan ta ez bazan
nik behintzat ez dut luze segi nahi
su beraren bueltan dantzan



KATTIN MADARIAGA APAOLAZA
Hasieran ez zegoen ezer

B kategoria -2.saria

Doinua: Inurriak (Mikel Urdangarin)

Nahiz big bangak egin
zuen eguzkia
Nahiz euriak uzten
dun lurra bustia
Zu zer bazara ta
bihotzaren taupa
deusetik ez al da
sortu ohi guztia

begiradak eman
zidan lehen pista
ondotik zetorren
irri bat erdizka
inor ezin salba
sekula ez al da
sua pizteko gai
lehenengo txispa?

klasekide lehial
ginenak gu berez
gaur elkarrekiko
hainbertze interes
ta deus ez bagara
hor zerbait falta da
lehen pausua sortzen
lagundu mesedez

elkarren beharra
sortu denez garaiz
zer garen zalantzan
horren nago ni maiz
“egun on, laguna!
zer moduz eguna?”
bakarrik galdetzen
nazkatzen hasi naiz

Hozkadaren bila
badabil gaztea
nahi badugu izan
bikote askea
Hau nahi baduzu zuk,
nik maite bazaitut,
Zergatik da zaila
hontaz solastea?

Eta amestea
libre bada, edo,
eskutik heldu nahi
zintuzket nik bero
Hain zaitut gertuko
Ez naiz hasertuko
Beso dena hartzen
badidazu gero

Zurekin nahi nuke
handitu sekula
egon tximeletak
ezin desimula
Ez hasteko gerran
ene maite, erran
Zuk ere berdina
sentitzen duzula

Lehen ezezagunak
ginen gu, akabo.
Orain lagunak bai,
eta zer gehiago?
deus ezetik, hara!
ja hau sortu bada
Gehiago sortzeko
deseatzen nago



KATTALIN LIZARRAGA MENDIA

Txirrina kantari

B kategoria - 3. saria

Doinua: *Jardin bat zuretzat*

Belarri ondoan dut
kantari txirrina,
batzen zaizkit logura
ta buruko mina.
Nahiz ta egiten dudan
beti ahalegina
eskola izateko
pixka bat arina,
astelehen goiza ez da
inoiz atsegina.

Azkar hartu ogia
eta marmelada,
berandu iritsiko naiz
bestela eskolara.
"Motxila ahaztu dut, kaka!"
buelta logelara
ta oheari eman
azken besarkada;
lasai, zortzi ordu barru
elkartuko gara.

Mahaipeko parrilla
liburuz beteta
eta agendan ia
mila azterketa.
Beti saiatu arren
mantentzen arreta,
burua leihotik at
joaten zait tarteka,
eskolaz kanpo dena

hobea da eta.

Lehenago zen hamar,
baina orain zazpi
ta hori ez omen da
niretzako aski.
Jada_ ez ditut ulertzen
mate eta fiki
eta saiatu arren
gogotsu, biziki,
azterketa parean
bihurtzen naiz txiki.

Ikasten esfortzua
jarri ta halare,
lana ez da bukatzen
jada nago grabe.
Aita ta ama nirekin
beti haserre daude.
Ze nekagarria den
izatea nerabe,
dena hobe izango zen
eskolarik gabe!



ENEKO LAZKOZ MARTINEZ

Inoiz ez da berandu! Edo agian bai?

C kategoria – 1. saria

DOINUA: Harrotasunik bada

1 Batzuetan ahaztuak
ezin gogoratu,
besteetan ahanztura
ezin geroratu.
Zenbatetan ez ote
naiz gauez lokartu
sentimenduak ezin
ongi kolokatu?
Nahiz eta kontatu,
ez zaitez tronpatu!
Ez nuke nahi biktima
moduan kokatu
baina ez zait bizitza
erreza tokatu.

2 Baten aurreiritzi,
bestearen epai,
zenbatek ez ote nau
izan hizketagai?
Baina nire gabezi
eta nire dohai,
nik pozik bizitzea
baino ez nuen nahi!
Berdin irriz alai
nola malkotan blai,
horrenbeste denbora
eman ondoren zai...
inoiz ez da berandu!
Edo agian bai?

3 Azken boladan bihotz
barruko arantza
zitzadaka hasi zait
bilintzi –balantza.
Hitz egiteko behar
handia du antza,
deika ta deika hoge
egun daramatza!
Buruak mudantza
iraganerantza,
polita denez nire
bizitzako martxa,
hartu edo ez hartu
hori da zalantza.

4 Gu bezelako lepoko
dago gizartea,
perfektua gutxitan
da senitartea.
Aspaldi apurtu zen
gurean katea,
neronek eraiki dut
nire izatea.
Antsietatea
joaz atakea...
Igual onena gauzak
argi esatea;
hartuko diot eta
ondoren bakea!

5 Nahiz eta zilegi zen
egitea muzin,
ez dakit nahi ez edo
den ez nahi ta ezin...
Erantzun egin diot
lehor bezain gordin
berandu hasi den hau
azkar buka dadin:
“Etetean ring-ring
hotsa barruak min!
Behar zenuenean
deitu duzu arin,
nik behar nuenean
ez zenuen egin!”

6 Hizketan hasterako
nintzen belarri zut
eta esandakoak
hala entzun ditut:
“Urtetan izan gabe
elkarren berri guk,
zurekin elkartzea
gurari hori dut.
Gaur azalpen batzuk
eman nahi dizkizut,
nahiz eta ez didazun
ezer zor niri zuk
bigarren aukera bat
eskatu nahi dizut”

7 Kolpetik bihurtu zait
mingaina aizkora
nahiz eta tonu hortan
ez ari gustora.
Bigarren aukera bat?
Hori nondik nora?
Berpizterik ba al da
galdutako lora?
Kolpetik ganora
sartu al zio ba?
Pasatakoa ez da
itzultzen gerora,
berreskuragaitza den
zerbait da denbora.

8 Ni silletan sarturik
soinean pijama
eta egun osoa
tabernetan barna...
Gizarte zerbitzutan
piztu zen alarma,
bideratu ninduten
amonarengana.
"Gaur otzan-otzana
zatoz niregana,
bai, zu zara bizitza
eman zenidana,
baina izan al zara
inoiz nire ama?"

9 "Ez dut asko luzatu
nahi elkarrizketa,
nahiago dut deiari
ixtea krisketa.
Nigana hurbiltzea
da zure apeta
baina pentsatze hutsak
belztu dit kopeta.
Gaur zugar arreta
jartzen zertan neka?
Erantzunik gabeko
galderaz beteta
zegoen hutsune bat
izan zara eta!"

10 "Beraz bazara norbait
osatu nauena
baina hutsune forma
eduki duena.
Kostata ahal izan dut
barneratu dena,
bidean irabazi
eta galdu dena.
Hautatu zutena
zen zentzudunena.
Amona izan zen ni
zaindu ninduena,
berak egin zuen zuk
ezin zenuena."

11 "Ez pentsa ez natzaizu
gorrototik ari,
eman zenidalako
bizitza opari.
Baina sortu zenidan
gabezi ugari
eta atzean utzi
zintudan aspaldi.
Noizbait belaunaldi
berri bati adi
jartzen banau bizitzak,
zor diot berari:
Berdin ez egitea
nire umeari!"

12 "Ez zuzeneko zita
behartu, bortitza.
Ez senitartekoen
bitartekaritza.
Biok egitekotan
elkarrekin hitza,
biok nahi izatea
da lehen baldintza.
Nik zurekin mintza
nahia dut murrizta!
Asmo onekin baina
berandu zabilta,
zu gabe eraiki dut
nik nire bizitza"

13 "Hainbeste buruko min
eta terapia
dira nire ezezko
honen zergatia.
Bion artean nahi dut
distantzi zatia,
hortaz hobeto dago
dei hau ebakia.
Bai, erabakia
dut erabat ia,
baina noizbait utziko
banu lubakia?
Agendan gordeko dut
Zure zenbakia



JOANES ILLARREGI MARZOL

Manuelen ahotik

C kategoria – 2.saria

Doinua: Dozena bat bertso berri

1 Dozena bat bertso berri
nahiko nizkioke jarri
bizitu nuen eta ikusi
dezakedan horri
Leitza neukan jaioterri
Franki etxea baserri
nor naizen esan behar al diot
oraindik inorri?

2 Manuel daukat izena
ta Lasarte abizena
nire mundua izan da herri,
doinu ta hitzena
Xalbador zein Bilintxena
entzunagatik maizena
bertso hauetan azalduko dut
neroni naizena.

3 Zizelak eta mailuak
harriak eta tailuak
gure garaian ez genituen
oraingo gailuak:
pantailak, bozgorailuak
eta ordenagailuak
baserriak lan-tresnak ziren
gure jostailuak

4 Taloak ta sardin-zaharrak
puruak, arto bizarrak
barrura sartzen genituenak
izan arren txarrak
azazkalak, atzaparrak
maiz behartuta beharrak
hezurak ziren etxean jaten
ez ziren bakarrak.

5 Ginelarikan nerabe
garun guriaren jabe
maisu-maistrarik ez zen ipintzen
sari parez pare
animali ta landare
baserriaren ondare
eskola asko jaso genuen
libururik gabe.

6 la garai hartarako
nire buru barrurako
hitzak doinutan sartzen nituen,
baina zertarako?
Mingainetik aterako
zitzaizkidan ordurako
ta bertsolari egin ninduten
konturatzerako.

7 Iritsi nintzen unera
Pertsona ezagunera
bertsoak errez etortzen ziren
nire garunera
joaten nintzen urrunera
kanturako jardunera
eta etxera bueltan etorri
hiru egunera.

8 Egungo mutil ta neska
aurpegi txar ta protesta
bertsolariak badaude baina
ofiziorik ez da
hiru-lau bertso trabeska
abestu eta gainezka
orain festara joaten dira
lehen gu ginen festa!

9 Gogoan dut zertasuna
baliagarritasuna
nire inguru hurbilak zuen
euskalduntasuna
hitzen aberastasuna
hizkuntzari maitasuna
hori bai zela hizketarako
egokitasuna.

10 ETB1, ETB2n
antza ez naute atsegin
marrazkietan Amezketako
Fernando has zedin
Txiritarenak betegin
Joxe Migelenak berdin
ez dut ulertzen niri zergatik
ez didaten egin!

11 Zahartu bainau denborak
ez ditut ulertzen modak
gaurko arropak dira txiste txar
baten metaforak
fosforitodun anorak
galtzak edonon zulo bat
alde ederra gure txapelak
eta alkandorak.

12 Arkatza eta papela
eskuetan nituela
hamaika aldiz sortu izan dut
bertso sail tropela
bizitakoen nobela
hurrengoentzat bezela
zer daukaten ta nondik datozen
jakin dezatela

13 Hirurogeita hemeretzi
urterekin ezin etsi
omenalditan egin zidaten
hamaika eresi
esker oneko kortesi
hunkigarri ta berezi
nire eskerra baino gutxio
ez dute merezi.

14 Lasartek bazekizkien
gaurko mundu ta hizkien
trataerari zuloak nola
aurkitzen zaizkien
nahiz ta penak zerizkien
nik halaxe nekuskien
garai berriei bertso zaharrak
jarri nahi nizkien.



ERIKA LAGOMA POMBAR

Inozentzi garbitzen duena

C kategoria – 3.saria

Doinua: Ama Birgina Erkudengoa I

1 Inozentzia galdua dunan
Luzaideko Inozentzi,
Perdón artean, ez ikusia
gutti aditzen dun *merci*.
Atzo puntuan etorri hintzen
eta helduko haiz etzi.
Zimurak ziento eta urteak
berrogeita hemeretzi.

2 Belaun azpitik bata narrasa
gorrixka-marroixka-coñac,
mantal zuriko isats bikiak
zintzilika, harat-honat.
Eskalapoién zola-jotzea
beti presaka, maiz berant,
gona tolesak puntadak luze
ehun eta hogeita bat.

3 Irizar i4 autobusetan
konplazentzia gidari
maleta baten giltzarrapoak
desorekan, diz-diz dagi.
Liseriketa astuna duen
hiriarentzat haragi
turismoaren bisaiak dira
ehun eta hogeita bi.

4 Ezkerraldeko ontzi beltzean
poltsa zurikara bildu,
toailla dorre simetrikoak
amarru bat irudi du,
garbikarien usain sarkorra
gibelarentzat gaztigu.
Gurditxoaren gurpilen jirak
ehun ta hogeita hiru.

5 Iribarrerik bako gizonak
igaroko ditu bi gau
igogailuko *exit* botoia
sakatuz, zanpatuz, dirau
amantalaren magnetismoak
ikusezin bihurtu hau.
Ate ertzeko xafra zurian
ehun eta hogeita lau.

6 Ohe gainean kantzontziloak
galtzerdi bat, bi galtza motz
horzkatutako pipa azalak
Heineken botilak hilotz,
lixibarekin garbitzen ditun
eta batzuetan malkoz.
Eskumuturren harat honatak
ehun eta hogeita bortz.

7 Buruan dauzkan irla galduak,
Bora-Bora, Paris, Brunei,
ilunabarrak tindatu ditin
eguzkia, hiru hodei.
Arduraduna usnaka dabil,
hara, galdutako bi dei.
Pilatutako arnas estuak
ehun eta hogeita sei.

8 Dutxa barruko ile xerloak
konketa goi eta azpi
azulejotan eskalatzaille
ta baldosetan narrasti.
Eskuilari eragin dion
aunitz, agian ez aski,
komun zuloko orbain horailak
ehun ta hogeita zazpi.

9 Tapa gorridun ontzi ttikian
fila, tisana, egosi.
Hidrokodona, hidromorfona
hiru lorazepan dosi.
Behatzak more izanagatik
ez hazatela ehortzi,
aitortu bako eritasunak
ehun ta hogeita zortzi.

10 Maneta hartu, atepak kirrink
arrastoan lau atzamar,
karrajoa den esofagoan
karroxa doa katamar.
Zirrikitutik ahots hotz batek
xuxurla egin din, mar-mar:
“Ez zaitez sartu, *ne dérangez
pas*”
ehun eta hogeita hamar

11 Akitu haute. Burukada bat
haizearekin topeka,
begiak gogoz igurtzi ditun
ta ikutu dun pareta.
Harrera mahaian, "*Bonsoir, á
demain*"
atera zain ahapeka,
ixildutako juramentuak
ehun ez, baizik hameka.

*12 T3 Moderne, Hotel du Palais
Ibis, Ercilla, Fantasy*
patronalaren dibidenduak
emeen bizkar doazi
konbenioa promestu zinan
baina agintza ahantzi
hilabeteko hire soldata
mila eta bederatzi